



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO URRIAREN 23KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Bilera berezia.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2015.10.23.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Udalkideen lansariak.
- 3.-Udalbiltzaren proposamena.
- 4.-Bortzirietako Zabor Mankomunitatea: tasei buruzko proposamena.
- 5.-Bortzirietako Euskara Mankomunitatea:ordezkari berriaren izendapena.
- 6.- Indarkeria matxisten aurkako mozioa.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2015eko urriaren 9an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 4. puntuari gehitu kartela bat jarriko dela hilketa gertatzen denean.

2.-UDALKIDEEN LANSARIAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen 21/2014 Foru Legearen 7. artikulua kontuan hartuz.

Kontuan hartuz Arantzako Udalak 15.893,99 euro kobratu duela partida horretatik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Alkateari urteko 3.973,50 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren dedikazio partzialaren ordain, eta Gizarte Segurantzaren alta emateak suposatzen duen gastua barne kontsideratuz. Zenbateko horri Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta dagokion atxikipena aplikatuko zaio, indarra duen legeriaren arabera.

2)Zinegotzi bakoitzari urteko 1.986,75 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea. Zenbateko horri Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta dagokion atxikipena aplikatuko zaio, indarra duen legeriaren arabera.

3)Aipatu zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Toki Administrazioako Departamentuak onesten duen urteko ebazpenari jarraikiz eta aldatzen ez den bitartean.

4)Orobat, beren karguan aritzean dieta eta joan-etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkie Udalbatzako kideei, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondoan.

5) Erabaki honek atzera eragina izanen du, 2015eko ekainaren 13tik aitzina.

6)Iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen uztailaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz

7) Aipatutako kopuruari hileko 20,00 euro kentzea Sorturi ordaintzeko urte bukaeran, Ander Almandoz Indakoetxea jaunaren kalte-ordaina edo ordaina izan ezik.

3.-UDALBILTZAREN PROPOSAMENA.

Gaia mahai gainean uzten da bilera egin arte Udalbiltzako arduradunekin.

4.-BORTZIRIETAKO ZABOR MANKOMUNITATEA: TASEI BURUZKO PROPOSAMENA.

Gaia mahai gainean uzten da Makomunitateko ordezkariekin bilera egin arte.

5.-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA:ORDEZKARI BERRIAREN IZENDAPENA.

2015eko ekainaren 19an egindako bileran erabaki zen udal ordezkaria Bortzirietako Euskara Mankomunitatean Ander Almandoz Indakoetxea jn. izendatzea eta, ordezkoa, M.Carmen Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jaunak kargu uzteko asmoa agertu du.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mentxu Peña Lizarazu andrea udal ordezkari izendatzea Bortzirietako Euskara Mankomunitatean eta Ander Almandoz Indakoetxea jauna ordezkoa.

6.- INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO MOZIOA.

2015eko azaroaren 7an, Madrilen Estatu osoko milaka pertsona bilduko gara, Mugimendu Feministak deituta, indarkeria matxisten aurkako manifestazioan.

Pertsona eta entitate guztiak, bereziki publikoak, deituta gaude manifestatzera eta herritarren ekintza horretan laguntzera ez ezik, prebentzioa eta oraindik dirauen



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

indarkeria matxistari ematen zaion erantzuna berraktibatzeraz eta hobetzeraz ere. Indarkeriaren iraupen hori agerian geratu da uda honetan izandako kasu hain larriekin, generoko indarkeriaren aurkako 2004ko lege integraletik hamar urte igaro diren arren, autonomia erkidegoetan lege ugari egin diren arren eta Istanbulko Hitzarmena berretsi (EAO, 2014-06-06koa) eta urtebete iragan den arren; izan ere, arau horiek guztiak nabarmen urratzen dira hezkuntza esparruko prebentzioari dagokionez, eta lan-babesa nahiz babes ekonomikoa, edo etxebizitzakoa, 126.742 salatzaileen % 1i baizik ez diete ematen, indarkeriaren haztegi den berdintasunik ezak gora egiten duen bitartean.

Udalak, erakunde hurbilagoak garen aldetik, ezinbestekoak gara prebentziorako eta laguntza sozial, juridiko eta psikologikorako, hala ezartzen baitute bai estatuko 1/2004 Legearen 19. artikulua, bai Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak ere¹. Hala eta guztiz ere, Toki Araubideari buruzko Legeko 27.3.c) artikulua, 27/2013 Legearen bidez aldatuak, dio udalek zerbitzu sozialak, aukera-berdintasuna sustatzekoak eta emakumearen aurkako indarkeria prebenitzekoak eman ahalko dituztela soilik Estatuak edo % 100 finantzatutako autonomia erkidego batek eskuordetuta, eta horiek ez dituztela inolaz ere estaltzen 2016rako Estatuko Aurrekontuen Proiektuko Genero Indarkeriari buruzko 232C programako 45. kontusaileko 6 milioiak.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2015eko azaroaren 7an Udaletxeko fatxadari pankarta more bat jartzea, "Indarkeria Matxisten Aurka" leloarekin, eta herritarrek martxan parte har dezaten sustatzea.
- 2) Urtero, gauza bera egitea, azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean.
- 3) Urteko egun guztietan eta urtero, berdintasunerako, prebentziorako eta indarkeria matxistaren biktimei laguntza juridiko, sozial eta psikologikoa emateko baliabide pertsonal, material eta politikoak mantentzea, 1/2014 Lege Organikoko 19. artikulua betez eta horretarako estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko finantzaketa sistema egonkor bat, epe luzekoa, ezarri.
- 4) Arreta egonkor eta kalitatezkoa ematea, irisgarritasun zabaleko eta konfidentziasun-, babes- eta anonimotasun-baldintzetan, horren barne direla errehabilitazioa, ebaluazioa eta jarraipena. Horrek berdintasunerako eta genero indarkeriaren aurkako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa publikoa eskatzen du.
- 5) Berdintasuna sustatzen eta genero indarkeriaren aurka egiten laguntzea ikastetxe eta hezkuntza etapa guztietan, eskola erkidegoarekin lankidetzan arituz.
- 6) Sexismoaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitea kultur jardunean, festen antolaketan, segurtasun eta bizikidetasun jardunean eta udal eskumeneko zerbitzu eta jarduketan.
- 7) Gure jardueraz eta zerbitzu guztietatik sexismoa, bereizkeria, jazarpena eta sexu-estereotipoak desagerraraztea.
- 8) Laguntza berezia garatzea askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeentzat eta indarkeria matxistak erasotutako beste kolektibo batzuentzat –

sexu-bestelakotasuna duten pertsonak, migratzaileak, funtzio-bestelakotasuna duten pertsonak, langabezia egoeran daudenak edo mendekotasuna dutenak-, laguntza-prozesuetan askotariko biktimizazioan erori gabe.

9) Gizarte zibilaren parte-hartzea, bereziki emakumeen erakundeena.

10) Erabaki hau igortzea Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzara, jarraipena egiten duenean eta Istanbulko Hitzarmeneko 68. artikulua aplikatuz GREVIORI txostenak igortzen dizkionean, jaso ditzan 7.3 eta 18.2 artikuluei jarraituz, toki administrazioaren jarduerak.

7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 98. ebazpenetik 102. ebazpena arte).

8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

9.-FRONTOIKO OBRAK.

Alkateak aditzera eman du frontoian egindako lanak.

Hainbat arazo zeuden frontoira ibilgailuak sartu eta ateratzeko edo karga hartzeko edo uzteko. Horregatik Udaleko langileek sarrerako eskailera kendu dute eta moldaketa egin.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako obra onartzea.

Bertzerik gabe, gaueko 10:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn..

